

***Valle de Trápaga-Trapagarango herritarrek Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egiteko Udal-Beken Programaren irizpideak (2018).***

351/18 DEKRETUA.- Horretarako ireki den espedientearen berri eman ondoren, ikusirik Udalak LH-ko goi mailako heziketa zikloetako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak sustatu nahi dituela udalerriko 30 urtetik beherako gazteen artean eta ekidin, arazo ekonomikoengatik, haiek ikasketak bertan behera uztea.

Kontuan harturik azaroaren 17ko Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28 artikuluan ezarritakoa.

Kontuan harturik kreditu nahikoa eta egokia dagoela indarreko Udal Aurrekontuan, Kontu-hartzailearen 2018ko abenduaren 27ko txostenaren arabera.

Aplika daitekeen legeriak ematen dizkidan eskumenen arabera (Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua) eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan aurreikusita dagoen goragokoak eskumenak bereganatzeko ahalmena erabiliz, honako hau

**EBATZI DUT**

**LEHENENGOA.**- Onartzea 30 urtetik beherako herritarren artean (2018-2019 ikasturtean) LH-ko goi mailako heziketa zikloetako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak sustatzeko Udal Beken Programaren irizpideak.

***VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO HERRITARREK LANBIDE HEZIKETAKO GOI MAILAKO ZIKLOETAKO IKASKETAK ETA UNIBERTSITATE-IKASKETAK EGITEKO UDAL-BEKEN PROGRAMA (2018)***

**ATARIKOA**

*Ikasten ari diren gazteen prestakuntza, eguneratze eta laneratzean lagundu dezaketen ekimen guztien buru jarri da Udala, gazte horiek zeharo hobetu daitezzen beren*

lanbidean.

Laguntza horiek udalerrian erroldatuta dauden 30 urtetik beherako gazteentzat dira eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasketak eta unibertsitateko ikasketak bultzatzea dute helburu, erraztasun handiagoak izan ditzaten kualifikazio handieneko lanpostuetan laneratzeko.

### **LORTU NAHI DIREN HELBURUAK**

Erakunde ekonomikoek behar bezala prestaturiko eta ikasitako profesional berri kopuru handi bat behar dute.

Laguntzen xedeak honako hauek dira:

- Gorago aipatu diren ikasketak egiten ari direnei laguntzea, kontuan hartuta kualifikazio handikoak direla eta inguruko hainbat enpresek eskatzen dituztela, ez dezaten zailtasun ekonomikoekin ikasi, sarritan gertatzen den bezala.
- Ikasle horiek arrazoi ekonomikoengatik beren ikasketak bertan behera utzi ditzaten ekiditea.
- Herri honetako gazteen kualifikazio akademikoa hobetzea aukera gehiago izan ditzaten lanpostu kualifikatuetan laneratzeko.

### **ONURADUNAK**

Beka hauen onuradun izateko eskakizun hauek bete beharko dira:

- **OROKORRAK**
  - 30 urte baino gutxiago edukitzea diru-laguntzaren deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean.
  - Valle de Trápaga-Trapagaranen erroldatuta egotea etenik gabe gutxienez urte beteko antzintasunarekin diru-laguntzaren deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean.
  - 2018/19 ikasturtean ikasketa zentro publiko batean matrikulatuta egotea titulu ofizial bat eskuratzeko.
- **BERARIZKOAK:**
  - Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetako ikasketeterako laguntzentzat:
    - ✓ Dagokion zikloaren ikasturte osoan, edo gutxienez, hura osatzen

*duzen moduluen erdietan matrikulatuta egotea.*

- ✓ *Ikasleari modulo kopuru txikiagoa geratzen bazaio Heziketa Zikloa amaitzeko, ez zaio eskatuko gorago aipatutako %50ean matrikulatuta egotea.*
- *Unibertsitate-ikasketetarako laguntzentzat:*
  - ✓ *Unibertsitate-ikasketatzat hartzen dira Gradua, Masterra eta Doktoregoa.*
  - ✓ *Graduko ikasketentzat, gutxienez 60 kreditutan matrikulatuta egotea.*
  - ✓ *Masterrekoentzat, ikasturte osoan matrikulatuta egotea ikasketa-planak urtebeteko iraupena badu, eta gutxienez, 60 kreditutan, bere ikasketa-planak urtebete baino gehiago irauten baldin badu.*
  - ✓ *Doktoregoentzat, programan onartuta egotea.*
  - ✓ *Gradu eta Masterrekoentzat, aipatutako kredituak baino gutxiago geratzen bazaizkio ikasleari amaitzeko, ez zaio eskatuko baldintza hori.*

## **ZENBATEKOA**

*Laguntzaren zenbatekoa gehienez 1.000 eurokoa izango da eskatzaile bakoitzeko, beti ere matrikularen zenbatekoa kantitate horretakoa edo handiagoa denean. Txikiagoa balitz, matrikularen zenbatekorainoko laguntza baino ez da emango.*

*Deialdi honetarako bideraturiko gehienezko zuzkidura 200.000 eurokoa izango da guztira, zati berdinetan banatuko delarik Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetako eta unibertsitateko ikasketen artean. Partida hau 2018ko udal aurrekontuetan jasota dago.*

*Ikasketa espezialitate bakoitzari esleitutako 100.000 euroak agortuko balira, beste ikasketa-espezialitateko funtsak intsuldatu lirateke ordaintzeko geratzen diren eskaerei erantzuteko.*

*Laguntza hauek aurreikusitako 200.000 euroko zenbateko osoa agortu arte emango dira. Kopuru hau gaindituko luketen beka-eskaerak baleude, zozketa publikoa egingo litzateke beka horiek emateko.*

*Pertsona batek, oinarri hauen arabera diruz lagundu daitekeen ikasketetako baten baino gehiagotan matrikulatu bada eta beka bat baino gehiago eskatuko balu, eskabide*

*guztiei erantzun eta gero gerakinik egongo balitz baino ez litzaioke emango bigarren beka eta hurrengoak .*

### **ORDAINKETA**

*Dagokion beka esleituta, haren zenbatekoa ordainketa bakarrean emango da.*

### **BATERAGARRITASUN EKONOMIKOA**

*Laguntza hauek bateraezinak izango dira beste edozein erakunde eta administrazio publikoetatik helburu bererako jaso daitezkeenekin.*

### **ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

*Eskabidea aginduzko agiriekin Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da 20 egun baliouduneko epean, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren biharamunetik kontatzen hasita.*

*Eskaerak, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/1995 Legearen 16 artikuluan aipaturiko administrazio publikoen erregistroetan ere aurkeztu daitezke.*

*Eskabideak ez baleude bere termino guztietan beteta edo ez badaramatzate atxikita aginduzko agiri guztiak, eskatzaileari hamar eguneko epea emango litzaioke, falta dena betetzeko eta eskatutako agiriak eransteke, eta ohartaraziko litzaioke, hala egin ezean, bere eskabidea atzera egintzat hartuko litzatekeela, eta eskabide horri buruzko berriazko ebazpena emango litzatekeela eta haren jakinarazpena egingo.*

*Eskabidea aurkezteak Oinarri hauen edukia onartzea suposatzen du.*

### **AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

- *Eskabidearen inprimakia, behar bezala betea (I Eranskina)*
- *NAN/AIZaren fotokopia (eta aitarena/amarena edo legezko tutorearena ere bai, adin txikikoen kasuan)*

- *Beka eskatu deneko ikasketei dagozkien matrikula-orriaren fotokopia, Lanbide Heziketako ikasketen zentroak edo unibertsitateak emana.*

*Doktoregoko ikasketentzako, aipatu programan onartua izatearen agiriaren fotokopia.*

- *Matrikulagatik ordaintutako zenbatekoa justifikatzeko agiria.*
- *Zinpeko aitorpena (2 eranskina):*
  - *Ez duela jaso laguntzarik xede honetarako beste edozein administrazio publikotik edo erakunde publiko edo pribatutik.*
  - *Diru-laguntza publikoak direla eta ez egotea itzultze- edo zehapen-prozesuetan sartuta.*
  - *Ez egotea zigortuta ez penalki ez administratiboki subentzio edo diru-laguntza publikoak galtzeko posibilitatearekin; eta ez edukitzea ezelako legezko debekurik diru-laguntzak jasotzeko, sexu-basterketaren ondorioz, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera gerta zitezkenak barne.*

*Udalean erroldatuta egotea ofizioz egiaztatuko da.*

### **PROZEDURA, ORGANO ESKUDUNA INSTRUKZIO ETA EBAZPENERAKO**

*Aurkezpen epea amaitu ondoren, eskabideak aztertu eta ebatziko dira.*

*Prozedura ebazteko organo eskuduna Alkatea edo Tokiko Gobernu Batzarra izango da hark esku ematen badio. Organo horrek laguntzak egiletsiko ditu, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziak ontzat ematen dituenean eta teknikoki egiaztatzen duenean baldintzak eta eskakizunak betetzen direla.*

*Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak ofizioz egingo ditu laguntzak ebazteko behar diren datuak determinatzeko eta egiaztatzeko ekintza guztiak.*

### **ERREKURTSOAK**

*Egilespenaren ebazpenak amaitu egiten du bide administratiboa, berraztertzeko errekurtsoa jar daitekeelarik hura eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontaktzen hasita.*

### **ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

*Beka jasotzen dutenek oinarri hauetan ezarritako betebeharrak izango dituzte:*

- *Oinarrietan adierazitako agiriak aurkeztea.*
- *Laguntza hauekin lotuta Udal honek egiten dituen egiaztatze-ekintzei men egitea.*
- *Jarduera, zeinarentzat laguntza eman den, burutzea.*
- *Berehala jakinaraztea egilespenerako kontuan izan diren inguruabarretan gertaturiko aldaketak.*

### **OINARRI HAUEN INTERPRETAZIOA**

*Oinarri hauen interpretazio edo aplikazioagatik sortu litezkeen zalantzak edo eztabaidak konpontzeko eskudun organoa Oinarriak onartu dituen organo eskudun bera izango da, aldez aurretik Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziak txosten teknikoa eginda.*

### **DATU PERTSONALEN BABESA**

*Diru-laguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena ematen du eta aitortzen du deialdian ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituela eta oso-osorik onartzen dituela haren termino guztiak.*

*Halaber, adierazten du eskabidean dauden datu pertsonal guztiak bere baimenarekin jasotzen direla eta onartzen du aipatu datuak tratamendu automatizatua izatea eta Udal honek behar bezala baimenduriko fitxategietan sartzea, eta baimena ematen du aipatu datuak udal kudeaketarako baino ez erabiltzeko, beste Herri-Administrazio Publiko edo haien Organismoei laga edo jakinarazi diezaizkiekelarik lege hauetan aurreikusitako kasuetan: Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide digitalen Bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europar Legebiltzar eta Kontseiluko 2016/679 Arautegia, Datuak Babesteko Arautegi Orokorra.*

*Interesdunek legean aurreikusi bezala, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, kentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakete idazki bat bidaliz Valle de Trápaga-Trapagarango Udalera. Lauaxeta plaza z.g. 48510 Valle de Trápaga-Trapagaran.*

## **INDARREAN SARTZEA**

*Oinarri hauek indarrean sartuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen diren biharamunean.*

## **I ERANSKINA-ESKABIDEA**

**VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO HERRITARREK LANBIDE HEZIKETAKO GOI MAILAKO ZIKLOETAKO IKASKETAK ETA UNIBERTSITATE-IKASKETAK EGITEKO UDAL-BEKEN PROGRAMA (2018)**

### **ESKATZAILEA:**

Izen-Abizenak:.....

NAN.: .....

Helbidea (Kalea, zk. hizkia eta PK): .....

Telefonoak: ...../ E-maila: .....

### **AITORTZEN DU**

*Udal Beken Programan eskatzen diren beharrezko eskakizunak betetzen dituela eta*

### **BEKA ESKATZEN DU**

*Gehienez, 1.000 eurokoa*

### **ERANTSI DITUEN AGIRIAK**

- *NAN/AIZaren fotokopia (eta aitarena/amarena edo legezko tutorearena ere bai, adin txikikoen kasuan)*
- *Beka eskatu deneko ikasketei dagozkien matrikula-orriaren fotokopia, Lanbide Heziketako ikasketen zentroak edo unibertsitateak emana.*

*Doktoregoko ikasketentzako, aipatu programan onartua izatearen agiriaren fotokopia.*

- *Matrikulagatik ordaintutako zenbatekoa justifikatzeko agiria.*

- *Zinpeko aitortpena (2 eranskina):*
  - *Ez duela jaso laguntzarik xede honetarako beste edozein administrazio publikotik edo erakunde publiko edo pribatutik.*
  - *Diru-laguntza publikoak direla eta ez egotea itzultze- edo zehapen-prozesuetan sartuta.*
  - *Ez egotea zigortuta ez penalki ez administratiboki subentzio edo diru-laguntza publikoak galtzeko posibilitatearekin; eta ez edukitzea ezelako legezko debekurik diru-laguntzak jasotzeko, sexu-basterketaren ondorioz, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera gerta zitezkenak barne.*

*Eskaera hau onartuko baliz eta beka emango balidate, ESKATZEN DUT haren zenbatekoa nire izenean sartzea banku honetan.....*

*IBAN ..... Sukurtsalaren kodea..... K.D. .... Kontu-korronte edo aurrezki-kontuaren zenbakia..... (OHARRA: Adin txikikoen kasuan, kontu zenbaki horretan, gutxienez gurasoetako edo legezko tutoreetako bat agertu beharko da).*

*Eskaera hau eta agiriak aurkezten dira Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2019ko .....ren .....(e)an.*

### **VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO UDALA**

*Adierazten dut eskabidean dauden datu pertsonalak nire baimenarekin jasotzen direla eta onartzen dudala aipatu datuak tratamendu automatizatua izatea eta Udal honek behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea.*

- BAI                      ○ EZ

*Baimena ematen dut aipatu datuak udal kudeaketarako baino ez erabiltzeko, beste Herri-Administrazio Publiko edo haien Organismoei laga edo jakinarazi diezaizkiekelarik lege hauetan aurreikusitako kasuetan: Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide digitalen Bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europar Legebiltzar eta Kontseiluko 2016/679 Arautegia, Datuak Babesteko Arautegi Orokorra.*

- BAI                      ○ EZ



## 2 ERANSKINA-ZINPEKO AITORPENA

### **VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO HERRITARREK LANBIDE HEZIKETAKO GOI MAILAKO ZIKLOETAKO IKASKETAK ETA UNIBERTSITATE-IKASKETAK EGITEKO UDAL-BEKEN PROGRAMA (2018)**

..... jaunak/andreak, adinez  
nagusiak, NAN zk. .... dudanak, eta helbidea  
..... herrian, ..... kalean, .....  
zenbakian, ..... eskuan.

#### **ZINPEAN AITORTZEN DUT**

- Egiazkoak direla eskabide honetan agertzen diren datu guztiak eta harekin batera aurkeztutako agiriak.
- Ez dudala jaso ezelako Administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatutik ezelako laguntza edo subentzio ekonomikorik beka hau eskatzen dudan ikasketentzat.
- Ez nagoela zigortuta ez penalki ez administratiboki subentzio edo diru-laguntza publikoak galtzeko posibilitatearekin; eta ez daukadala ezelako legezko debekurik diru-laguntzak jasotzeko, sexu-basterketaren ondorioz, Gizon eta Emakumeen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera gerta zitezkenak barne.

Izptua.:.....

Oharra:Eskatzailea adin txikikoa bada, aitorpen hau bere aitak/amak edo legezko tutoreak sinatu beharko du.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea Udal Beken Programaren irizpideak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Ediktu Oholean eta webgunean argitaratuz.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hemezortziko abenduaren  
hogeita hamaikan.

ALKATEA

Xabier Cuéllar Cuadra